

GIZARTE BAZTERKETA EGOERAN EDO PAIRATZEKO ARRISKUAN DAUDEN EMAKUMEAK KONTRATATZEKO “KOKATU ERRETERIA” PROGRAMARI DAGOZKION LAGUNTZEN OINARRIAK

1.- Oinarrien helburua

Honako oinarrien helburua, Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentziak eta KOKATU ERRETERIA programaren barne, gizarte bazterketa egoeran edo pairatzeko arriskuan dauden emakumeen kontratazioaren deialdia arautzea da, 56/2003ko abenduaren 16ko legearen betebeharrean. Lege honek, dio, enplegu aktibazio politikek helburu bezala kontratazioa sustatzea dutela, baita enplegu sorkuntza edo lanpostuen mantenua ere; bereziki enplegua mantentzeko eta lortzeko zailtasun handiagoa duten taldeen artean, gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonak aintzakotzat hartuz, emakumeak kasu.

2.- Kontratazioaren pertsona onuradunak

Oarsoaldea eskualdeko enpresek egingo dituzten kontratazioen pertsona onuradunak: Errenteriako Gizarte Zerbitzuak Eskualdeko Garapen Agentziarekin batera hautatuak izan dira.

3.- Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentziak eskainitako diru-laguntzen enpresa onuradunak.

Programa honen diru-laguntzen onuradun izateko, honako baldintza hauek betetzen dituen lan merkatu arrunteko edozein sektoretako enpresek parte har dezakete.

- a) Enpresaren helbide soziala, Oarsoaldeako eskualdean kokatua egotea, edota enpresaren helbide soziala Oarsoaldeako eskualdetik kanpo egonik, kontratazioa Oarsoaldea Eskualdeko lantoki baterako izatea.
- b) Egingo diren kontratazioak enpresaren jarduerarekin zuzenean erlazionaturiko postuetan izatea.
- c) Enpresa, foru ogasunean zerga bete-beharretan egunean egotea.
- d) Enpresa, Gizarte Segurantzaren diruzaintza orokorren bete-beharretan egunean egotea.

4.- Laguntzen eskaeren aurkezpena

4.1. Laguntza eskaerak, I ERANSKINA, Oarsoaldea Eskualdearen Garapenerako Agentziaren Enplegu Bulegora bidali beharko dira emailaz, olibet@oarsoaldea.net oinarri hauek Oarsoaldeako web orrian argitaratzen direnetik (www.oarsoaldea.net).

4.2. Eskaerak aurkezteko epea, laguntzaren helburu diren kontratazioak burutzen direnean bukatuko da.

5.- Laguntzen eskaeren akatsen zuzenketak

Laguntzen eskaerek bete behareko baldintzak betetzen ez badituzte edo ez bada eskatutako dokumentazioarekin batera aurkezten, interesdunei 10 egun baliodunetan akatsak zuzendu edo dokumentuak aurkezteko esango zaie. Horrela egingo ez balute, bertan behera utziko da eskaera, betirako artxibatuko delarik.

6.- Kontratazio mota eta diru-laguntzaren zenbatekoa.

6.1. Gutxieneko kontratazio aldia 6 hilabetekoa izango da, eta kontratazioak lanaldi osokoak edo lanaldi erdikoak izan daitezke.

Oharra: Proposatuko diren lanaldi motaren arabera kontratu ahal izango den emakume kopurua 8 eta 16 tartean ibiliko da.

6.2. Edozein kontratu-mota onartuko da, prestakuntza eta ikasketarako kontratua salbu.

6.3. Lanaldi osoko kontratu bakoitzeko gehienezko diru-laguntza 10.000 (HAMAR MILA) € izango da, eta lanaldi erdiko kontratu bakoitzeko gehienezko diru-laguntza 5.000 (BOST MILA) € izango da.

6.4. Enpresak jasoko duen diru-laguntzak ezingo du soldata eta kontratatuak izango diren Gizarte Segurantzaren kostua %100ean gainditu.

7. Diru-laguntzen emakiden irizpideak

7.1. Kontratazio laguntzen emakida, eskaerak jaso ahala aztertzen joango dira, eta ondorengo irizpideak erabiliko dira:

- Lanpostuaren ezaugarrien egokitasunaren arabera, aurrez aukeratuak izan diren pertsonetik.
- Kontratazioa luzatzeko aukeren arabera.

7.2. Enpresa bakoitzeko gehienezko kontratazio kopurua 3 pertsonatakoa da.

7.3. Lanpostuak betetzen dituzten eskaerak onartutakoan, beste eskaerak erreserban onartu ahal izango dira, aurreko eskaerak formalizatu gabe gelditu badira edo kontratazioaren bat bere osotasunean gauzatu ez balitz osatzeko.

7.4. Diru-laguntzaren emakidaren jakinarazpena, diru-laguntzaren onuradun izango den enpresa eta Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentziaren arteko hitzarmen batean gauzatuko da.

8. Diru-laguntzaren ordainketa eta egiaztatu beharreko dokumentazioa.

8.1. Diru-laguntzaren ordainketa, honako dokumentazio hau aurkeztu ondorengo ordainketa bakarrean egingo da:

- a) Lan kontratuaren kopia.
- b) Kontratazio hilabetei dagokien TC1 eta TC2 agiriak.
- c) Kontratazio hilabetei dagokien nominen kopiak.
- d) Zerga ogasun eta Gizarte Segurantzaren bete beharretan egunean dagoen ziurtagiria.

8.2. Lan kontratuen iraungitzea, diru-laguntza lortzeko zehaztutako iraupena baino laburragoa balitz, diru-laguntzaren zenbatekoa proportzionalki lan kontratuaren iraupenaren arabera gutxituko da.

8.3. Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentziak, behin enpresak aurkeztutako dokumentazio guztia berrikusi eta onartu ondoren, 2015eko abenduaren 31 baino lehen egingo ditu diru-laguntzen ordainketak.

9.- Baliabide ekonomikoak

KOKATU ERRENTERIA programaren diru-iturriak, gizarte bazterketa egoeran edo pairatzeko arriskuan dauden emakumeen kontrataziora bideratuak daude, diru-laguntza 80.000€ (LAROGEI MILA) € da.

10.- Informazioa

Honako deialdiaren inguruan informazioa gehiago jaso nahiko luketen enpresek, Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentziarekin jar daitezke harremanetan, 943.510.200 telefonoan (astelehenetik ostiralera 09:00-14:00) edo helbide elektroniko honetan olibet@oarsoaldea.net.